



ZERU AHOAK / MOUTHS OF SKY (BOCAS DE CIELO) EMANALDI BEREZIA • Espainia

Koldo Almandoz (zuzendari eta gidoilaria)
Nagore Aranburu, Sara Cozar, Miren Gaztañaga eta Joxean Bengoetxea (aktoreak)
Marian Fernández (ekoizlea)

SERGIO BASURKO

Koldo Almandozek *Zeru ahoak* la-narekin jarraipena eman dio *Hondar ahoak* telesailaren unibertsoari. Izan ere, bost urtera heldu da Nerea García (Nagore Aranburu) ertzain ohiaren kasu berria. “Lehen seriea amaitu genuenean, bagenuen ideia bat eta argumentu bat pertsonaia nagusiarekin jarraitzeko. Hasiera-hasieratik ikusi genuen protagonistak askoz gehiago eman zezakeela”. Nolanahi ere, emanaldi berri hau aurrekoarekiko oso diferentea dela ziurtatu du: “Argi genuen ez genuela serie bera egin nahi. Aurrekoa baino hiritarragoa eta ilunagoa izatea nahi nuen, horregatik aukeratu genuen Bilbo”, azaldu du Almandozek.

Zeru ahoak berezko nortasuna eta estetika dituen lau kapituluko telesaila da: “Genero beltzaren maitale gisa, beti ulertu izan dut ikusleak, alde batetik, generoak berezkoak dituen espektatibak betetzea bilatzen duela, eta, bestetik, beste lan batzuetatik bereiziko duen zerbait berri eta originala eskaintzea. Nire ekarpena zentzu horretan pertsonaia izan dira, horiek eramaten dute ikuslea eskutik alde batetik bestera. Hiltzaileen istorioak

Estoldetatik zerura begira



Koldo Almandoz, *Zeru ahoak* telesailako aktore nagusien erdian.

ULISES PROUST

eragile modukoak dira trama mugiarazteko, baina pertsonaien arteko harremanak, elkarrizketak eta abar dira benetan funtsezkoak”, ziurtatu du.

Prentsaurrekoan Nagore Aranburu, Sara Cozar eta Joxean Bengoetxea aktore ‘errepikatzailak’ eta Miren Gaztañaga ‘fitxaketa’ be-

rria egon dira. “Interpretatu ditudan pertsonaien artean, hau da nire gogokoenetako bat”, ziurtatu du Aranburuk; eta “bilakaera nabarmena” izan duela uste du, orain “hura sakonago ezagutzeko aukera dugu”.

Telesailak jarraipenik izan dezakeen galdetuta, Almandozek ez du

ezezkorik esan, alabaina, “ikus-entzunezkoak oso une positiboak bizi duen arren, ez dakigu urte bat edo bi barru egoerak berdin jarraituko duen”. Marian Fernández ekoizleak, aldiz, jarrera baikorragoa agertzen du: “nik behintzat ez dut protagonista hiltzen ikusi”.

A thrilling tale of crime and corruption

Koldo Almandoz returns with his new series *Zeru Ahoak / Mouths of Sky*, a thrilling sequel to *Hondar Ahoak*. Five years after the original, the miniseries brings back Nagore Aranburu as Nerea García, a former Basque Ertzaintza police officer living in isolation in Bilbao. When a woman's body is discovered in a ritualistic murder, Nerea is drawn back into a complex investigation. The story unfolds in a darker, more urban Bilbao, with Almandoz emphasizing character depth over plot. This four-episode thriller explores the murky intersection of crime, corruption, and personal struggle. Presented outside competition at Zinemaldia, *Zeru Ahoak* will soon premiere on RTVE Play, continuing its exploration of Basque noir.

ZINEMAREN HIRU ALDIEN ESKOLA

Ikerkuntza, gogoeta eta
esperimentazio zinematografikorako
nazioarteko zentroa.

LA ESCUELA DE LOS TRES TIEMPOS DEL CINE

Centro internacional para la
investigación, el pensamiento y la
experimentación cinematográfica.

THE SCHOOL OF THE THREE TENSES OF CINEMA

International centre for research,
thought and film experimentation.

